



BULLYINGAREN AURKAKO SENTSIBILIZAZIO KOMUNITARIOKO JARDUERAK EIBARKO UDALAREN ALDETIK

Sentsibilizazio programa Udalak onetsitako [Haur, Nerabe eta Familien I. Planaren \(2018-21\)](#) ekintzen barruan kokatzen da.

Programa hau Eibarko Berritzegunearen lankidetzarekin gauzatzen da. Berritzeguneak BAT taldeekin (Bullyingaren Aurkako Taldea) egiten du lan. Talde horiek funtsezkoak dira prebentzioa lantzeko eta jazarpena jasan duten pertsonekin, jazarri dutenekin, jazarpen hori ikusi dutenekin, jazarlearekin edota haien familiekin esku hartzeko.

Orain arte, bi sentsibilizazio-jardunaldi egin dira, bata Udalaren barruan eta bestea kirol-klubei eta aisialdiko elkarteei zuzenduta. Horietan 50 pertsona inguruk parte hartu dute.

Bullyingari dagokionez, ezinbestekoa da ikastetxeen inplikazioa; horregatik, ikasleei zuzendutako ekintzak proposatu dira, eta ikastetxeei laguntza eskatu zaie.

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat erakusketa bat egingo da Portalean, Udal Liburutegiarekin elkarlanean, joan den ikasturtean abiatutako "Tantaka, tabuak ipuinetatik lantzen" programari jarraipena emanaz. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat lehiaketa bat egitea proposatu da, Bullyingaren aurkako logoa eta leloa prestatzeko.

Gurasoak Martxan programaren barruan, eta ikasturtean zehar, gurasoei zuzendutako zenbait hitzaldi emango dira, bullyingaren ingurukoa barne. Seguru asko, hitzaldiak on line izango dira.

TANTAKA, TABUAK IPUINETATIK LANTZEN


Programako parte-hartzaileak:

Juan San Martin udal liburutegia eta Eibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuko Haur, Nerabe eta Familia Arloa, eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duten herriko ikastetxeak.

Azalpena:

Ipuin bat erabiltzen da, bere kalitate literarioari esker, helduoi zaila zaigun edo sozialki tabutzat jotzen den gai bati ekiteko tresna gisa balio duena. Ipuinetik abiatuta, erakusketa bat sortzen da, eta, horren bidez, hainbat jarduera egiten dira.

Aukeratutako liburua:



"Juul", Gregie de Maeyerrek idatzia eta Koen Vanmechelenek ilustratua (eskulturak)

Jorratu beharreko arazoak:

Irainak, isekak, umiliazioak; azken batean, bullyinga.

Erakusketaren gaia

“Juul: iraintzea hitzekin jotzea da”

Juuli barre egiten diote denek. Barre egiten diete bere kizkurrei, bere belarriei, bere totelkeriari, bere begiei... Besteei gustatzen ez zaiena atera edo kenduz joaten da Juul. Besteak maite dituenek, haiek bera maitatzea nahi du. Besteengandik bereizten duena kentzen du.

Berdinen arteko indarkeriaren kontakizun ikaragarri hau egurrezko eskulturekin ilustratua dago. Aukera bikaina da gazteek Juulen inguruan ikus dezaten irainak, isekak,

umiliazioak indarkeria-ekintza direla eta zatika txikitzen dituztela haiek pairatzen dituztenak.

Berriazko helburuak:

- Ipuin batean oinarritutako erakusketa bat egitea eta gida didaktiko batez hornitzea.
- Erakusketaren oinarri den ipuina ezagutaraztea eta irakurzaletasuna ipuinean jorratutako alderdietatik lantzea, irainak, isekak eta umiliazioak, kasu honetan.
- Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleei erakusketa didaktikoa eskaintzea, ipuina lantzeko metodologia batekin.
- Jarduera osatzea, gai bera jorratzen duten beste irakurketa batzuk eskainiz.

Erakusketaren formatua

Erakusketaren elementuak eta ideia Gijongo Udalaren Kultura, Hezkuntza eta Herri Unibertsitateko Udal Fundazioak laga ditu.

Erakusketa hau ipuinaren testu eta eskulturekin osatuta dago; bisita gidatua egiteko moduan jarrita daude elementuak.

Natalie Hickeyk egingo ditu bisitak, ordu eta erdi inguruak. Honako egitura izango dute:

1. Erakusketara sartu aurretik, begiraleak taldea hartuko du eta galdera batzuk egingo dizkie:



- ✓ Gustatzen zaizu iraindua izatea?
- ✓ Esan dezakezu inoiz ez duzula inor iraindu?
- ✓ Zer sentitzen duzu iraintzen zaituztenean?
- ✓ Zer sentitzen duzu norbait iraintzen duzunean?

2. Begiraleak lagunduta, Juulen erakusketa erakusketan zehar ibiliko da taldea du taldeak, ipuina entzuten duen bitartean.

3. Istorioa kontatu ostean, zirkuluan esertzera gonbidatuko ditu, eta irainen, sentimenduen, Juulekiko identifikazio pertsonalaren eta abarren inguruan hitz egitera bultzatuko ditu. Eztabaidaren tartea da.

4. Jarraian, inkesta anonimo bat banatuko da. Bertan, ikasleek galdera hauei erantzungo diete banaka:

- ✓ Etxean esaten dizkizuten irainetatik, aipatu gehien gogaitzen zaituztenak
- ✓ Zure lagunek esaten dizkizuten irainetatik, aipatu gehien gogaitzen zaituztenak
- ✓ Irakasleen irainik jasotzen baduzu, idatz ezazu
- ✓ Zure gorputzaren zatiren bat aldatzeko aukera izango bazenu, zer aldatuko zenuke?
- ✓ Ahal izanez gero, zer aldatuko zenuke zure izaeratik?

5. Joko enpatikoa. Talde-dinamika horretan, ikasle bakoitzak bere buruaren alderdi positiboren bat nabarmenduko du eta taldean partekatuko du, guztien arteko lotura-sare bat ehunduz.

6. Erakusketako ibilbidea eta jarduera osagarriak amaitu ondoren, irakasleek, ikasgelara itzulitakoan, ikasleei Juuli gutun bat idazteko eska diezaiekete, saioan bizi izandakoari buruz dituzten iritziak kontatzeko. Material horrek ikasgela bakoitzean eztabaidarekin jarraitzeko balio dezake.

Irakurketa gida

Horrez gain, Udal Liburutegiak irakurketa-gida bat egingo du, bullyinga prebenitzeko material gehiagorekin. Gida hori ikastetxeetan banatuko da, baita liburutegian bertan ere.

Egutegia

Erakusketa Juan San Martin Liburutegian egongo da urriaren 1etik 22ra.

Ebaluazioa

Prestakuntza jardueren eta ikasleek egindako bisiten inguruko gogobetetze inkesten bidez egingo da.